

## **Ibilbide oparoa duen kazetaria**

X. A.

*Gara*, 1999-07-28: 40.

Kazetaritzat du bere burua Martin Ugaldek. Baina arlo horretan eginiko ibilbidea oparoa izan bada ere, ez da bakarra izan, idazle eta historialari gisa ere lan mardula egin baitu andoaindarrak.

1921ean jaioa, Gerra Zibilaren ondoren, 1947an, Euskal Herritik alde egin zuen aita eta anaiarekin elkartzeko, biak Venezuelan baitzeuden erbesteratuta. Kazetaritza ikasi zuen Chicagoko Northwestern Unibertsitatean eta "El Farol" aldizkariaren zuzendaria izan zen.

1969an itzuli zen Euskal Herrira, eta bertan euskal kulturaren aldeko ekimenak bultzatu zituen. Honela, 1989tik Egunkaria Sortzen taldeko kide da, eta 1990ean Euskaldunon Egunkariako Administrazio Kontseiluko lehendakari ere izendatu zuten.

Idazle gisa kontakizunak eta eleberriak argitaratu ditu, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere, horien artean "Un real de sueño sobre el andamio", "Cuando los peces mueren de sed", "Las brujas de Sorjin", "Bihotza golkoan", "Itzulera baten historia" eta "Pedrotxo". Azkenaldian hainbat omenaldi eskaini dizkiote Ugalderi. Joan zen azaroan euskara eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik Merezimendu Saria eman zion Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak eta Joan Mari Torrealdaik Ugalderen biografia. "Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena", kaleratu zuen.